

Haur literatura aztergai 3

Iñaki Zubeldia



erein

Haur literatura aztergai 3

Iñaki Zubeldia

Aurkibidea

0. Aitzin solasa
1. Haur eta gazte literatura, 2012. Irakur Gida
2. LUN-LUMO BILDUMA. Euskal haur literatura esperantoz
3. Ipuin kontalaritza
4. Jasone Osoro, gazteek biziki estimatzen duten idazlea
5. Imanol Urbietta, musikagile, pedagogo eta idazlea
6. Enkarni Genua, Euskal Herriko txotxongilolaria
7. Ilustrazioen garrantzia haur literaturan. Estibalitz Jalon
8. Alaitz Olaizola, umeentzat eta gazteentzat antzerkia idazten duen emakumea
9. Eremu askea. Gazteen antzerki tailerra 2013 (12-17 urte)
10. Bitartekariak haur literaturan
11. Jabier Muguruza, HGLn ahots berezia eta oso pertsonala duen idazlea
12. Hiru herri ipuin eredugarri
13. Haur eta gazte literatura, 2014. Irakur Gida
14. Toti Martínez de Lezea, haurrak, gazteak eta helduak bereganatu dituen idazlea
15. Imanol Urbietta. In memoriam

Aitzin solasa

Ezer baino lehen esan dezadan liburu hau ez dela Haur Literaturari buruzko tratadu bat ezta gai horri buruzko azterketa sakon eta orokor bat ere. Gehiago dira haur eta gazte literaturaren eremura egindako inkurtsioak. Bertan haur literatura, ipuin kontalaritza, musika eta abesti poetikoak, txotxongiloak, ilustrazioen garrantzia haur literaturan, haur eta gazteentzako antzerkia, euskaratik esperantora itzultitako obrak, hainbat autoreren lanak, bitartekariaren eginkizuna haur literaturan... aztertzen dira eta zenbait gogoeta, elkarrizketa eta iritzi kritiko eskaintzen. Hemen aurkituko dituzu euskal haur literaturari buruzko zertzelada batzuk: autore batzuen lanaren azterketa eta eurei egindako elkarrizketak, Imanol Urbietaren abesti poetiko eta erritmikoen mundua, euskal ilustratzaile gazte baten ibilbidea, Txotxongilo taldeak egin duen lan itzela, Alaitz Olaizolak haurrentzat eta gazteentzat antzerkiak idazten eta hauek taularatzen egin duen ahalegin bikaina, Aitor Aranak euskaratik esperantora itzultitako haur literaturako hainbat liburu, Toti Martínez de Lezearen ibilbide arrakastatsua... Ikusten duzunez, denetik dago, baina betiere haur eta gazte literaturaren ikuspegitik aztertuta eta begiratuta.

Gai hauek Gillermo Etxeberriaren konbentzimendu ahalmenari esker sortu ziren EGAN aldizkari-rako artikulu itxuran eta aipatu aldizkarian argitaratu ziren bere garaian. Artikulu horiek bildu eta ukitu txiki batzuk eman ondoren liburu bezala apailatu ditut. Horregatik, atal batzuei gaurkotatzea faltako zaie eta gaur egun egon beharko luketen autore eta datu batzuk faltako dira. Beraz, norbaitek ikusten badu bere izena edo bere obraren bat ez dela azaltzen, izan liteke nire ezjakintasunagatik edo nire despisteagatik, baina izan liteke baita ere kapitulu hori duela urte batzuk idatzi zelako eta aktualizatu gabe dagoelako.

Nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet ondorengo kide hauei:

- Gillermo Etxeberriari, artikulu hauek idaztera animatu ninduelako eta nigan konfiantza eduki zuelako.
- Idoia Sanchez ipuin kontalariari, ofizio honen zirrikituak, zailtasunak eta balioak erakusteagatik.
- Aitor Aranari euskal haur literatura esperantoz jartzeagatik eta lan horretan bere laguntzaile aukeratu ninduelako.
- Jasone Osorori bere obra guztia ezagutzeko aukera emateagatik eta lan horretan laguntzeagatik.
- Imanol Urbietari bere musikarekin halako une ederrak pasarazteagatik eta euskal ikasleentzako hainbeste abesti eta poesia goxo asmatzeagatik.
- Enkarni Genuari txotxongiloen mundua ezagutzen eta ulertzen laguntzeagatik.
- Estibalitz Jaloni, bere ilustrazioekin nire obra batzuk hain maisuki edertzeagatik, eta bere ibilbidearen berri emateagatik.
- Alaitz Olaizolari, haurren antzerki mundura gerturatzeko laguntzeagatik.
- Eta, azkenik, Toti Martínez de Lezeari bere obra aztertzerako garaian eman didazu laguntza eta erraztasun guztiengatik.

Iñaki Zubeldia

Haur eta gazte literatura, 2012

Irakur Gida

EGAN 2013 3/4

Gidaren hasieran haxe dator:

Argitaratzailea:

Mondragon Unibertsitatea.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Erredakzioa Idazkaritza:

Mondragon Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko

Haur Liburu Mintegia

Dorleta Auzoa, z/g

20540 - Eskoriatza

Pena handiarekin, baina berriro ere ezetz esan behar diot Gida hau osatzen duen taldearen jokabideari. Gida honetan 2012. urtean argitaratutako liburu guztiek egon behar zuten, baina bat behintzat falta da eta ez da lehenengo aldia autore berari liburua falta zaiona. Ez dakit erru honen erantzuleak zerrendan ageri diren hamalau irakurle eta iritzi emaileak diren edo bat bakarra den.

Falta den liburua *Ipurtargien festa* da, Iñaki Zubeldiak idatzia eta Estibalitz Jalonen marrazki zoragarriekin osatutako albuma. Ez da lehenengo aldia Irakur Gida honek eta hau idazten duenak tirabirak izan dituztena, injustizia nabariak sumatzen zituelako Irakur Gida horietan kritika hau egiten duenak.

Oraingoan ere Gidaren berri izan bezain laster, gainbegiratu bat eman nion eta laster konturatu nintzen 2012. urteari zegokion nire liburu bakarra ez zela ageri. Hori ikusita, web orrian ageri zen Mondragon Unibertsitateko helbidera ohar bat idatzi nuen azalpenak eskatuz. Esaten nien ez azaltze horren arrazoiren bat eman ziezadatela, bestela zerbait gogorragoa etorriko zela. Eta ez dut inolako erantzunik jaso. Eta horren aurrean, inpotentzia handia sentitzen duzu eta Mari Karmen Gallastegiren hitzak etortzen zaizkit gogora, 13-X-16ko Diario Vasco egunkarian ageri zirenak:

«En numerosas ocasiones he sentido que estaba pegándome contra una pared con la fuerza del acero. Esa pared, creo, está construída con materiales que a mí me parecen viscosos. Materiales como el amiguismo excesivo, la endogamia, la corruptela, la ambición personal mal encaminada. Los vicios, aunque son menos, siguen presentes, no han desaparecido porque, creo, no hemos sido capaces de crear reglas útiles para acabar con estas malas prácticas».

Mari Karmen Gallastegik, UPV/EHUko Ekonomia katedradunak hitz hauek esan zituen 2013ko Eusko Ikaskuntza Saria jasotzeko ekitaldian. Eta ez zaio arrazoirik falta. Horrelako asko gertatzen da gure esparruan ere. Mondragon Unibertsitateak hemen ageri den baino giza kalitate jatorragoa zabalduko ahal du bere ikasleen artean.

Eta ni berriro ere EZ, EZ, eta EZ esan beharrean aurkitzen naiz horrelako jokabide baztertzailen aurrean, eta gutxiago Gida osatze lan hau diru publikoaz babestuta egiten denean.

Eta jokabide honen aurrean esan dezadan Bizkaiko liburuzainek bereziki gomendatu zutela album honen irakurketa bere baloreengatik. Oso album logratua da ilustrazioen kalitate aldetik. Testuari buruz ez noa ezer esatera. Celia Estebanez Gerrikabeitia, Bizkaiko liburuzain eta haur literaturaren maitaleak hitz hauek idatzi zituen album honi buruz: «Kontakizun poetiko honetan baloreak eta naturaren magia uztartuz, irakurleengan, hain garrantzitsua den, naturarenganako interesa, maitasuna, errespetua, sentsibilizazioa sustatzea eta konpromisoa areagotzea lortu da».

LUN-LUMO BILDUMA

EGAN 2013 3/4

Euskal Haur Literatura mundura zabaltzeko Esperantozko liburu bilduma -Proiektu aurkezpena-

Aholkulariak:

Xabier ETXANIZ

Manu LOPEZ

Iñaki ZUBELDIA

Itzultzaile eta zuzentzaile:

Aitor ARANA

Joxemari SARASUA

1. LUN-LUMO bilduma zergatik eta zertarako

Esperantoak 140 urte dauzka nazioarteko hizkuntza zereginetan, inongo gobernuren laguntzarik gabe. Euskararen kasuan bezala, hizkuntza euren kabuz ikasi eta lagundu dutenei esker egin du aurrera esperantoak. Bide horretan, irakurle onak diren hiztunak edukitzea lortu du 120 naziotan. Horiei egoki erantzuteko, Rotterdam hirian aspaldi ari da lanean UEA (Universala Esperanto-Asocio) izeneko elkarteak, bere liburu salmenta zerbitzuaren bidez.

Urteak dira Euskal Herrian esperantoz hitz egiteko ez ezik, literatura sortzeko gauza diren euskal idazleak eta testu zuzentzaileak dauzkagula: horiek urteen joanean profesionalizatu egin dira, gainera.

Horretaz baliatuz, LUN-LUMO bilduma abian jartzeko garaia heldu dela iruditzen zaigu, gaur-gaurkoz modurik egokiena irizten zaigulako, gure haur literatura mundura modu zabalean eta eragin-korrean zabaltzeko, baita ingelesaren moda iragankorraren gainetik ere.

2. Bilduma ongi osatua

Ahalegin berezia egin da bilduma Euskal Haur Literaturaren ahalik eta ispilu zabalena izan dadin.

Horretarako alor horretan adituak direla erakutsi duten hiru idazle eta kritikari jantzirengana jodugu.

Horiek Xabier Etxaniz Erle, Manu Lopez Gaseni eta Iñaki Zubeldia jaunak dira.

Hirurek onentzat jo dituzten idazlanek osatzen dute nagusiki bilduma, itzultzailearen eta zuzentzailearen iritzia ere haintzat hartu dela.

3. LUN-LUMO bildumaren ezaugarriak

- Bilduma 12 x 19 formatoko liburu erosoek osatzen dute.
- Azalak koloretan eginak dira.
- Orrialde kopurua 50 eta 80 artekoa da, irudiak barne.
- Barneko irudiak zuri-beltzezkoak dira.
- Kontrazalean liburuaren laburpena, egileraren datuak eta erakunde laguntzaileen anagramak ageri dira.
- Liburuak bildumaren ezaugarria den «Kolekto LUN-LUMO» zigilua daukate.
- Liburuak zenbakituak dira.

4. Bilduma osatzen duten izenburuak eta egileak

Argitaratuta:

- 1.- EUSKALDUN BAT MARTEN Iñaki Zubeldia
- 2.- TXAN FANTASMA Mariasun Landa
- 3.- KLAUDIA ETA BALOIEK SEKRETUA Aitor Arana

Jadanik inprimategira bidean:

- 4.- USOA, HEGAN ETORRITAKO NESKA Patxi Zubizarreta
- 5.- MOMOLO Antton Kazabon

Ondoren argitaratzeko:

- 6.- TXIMU BAT KLINIKAN Iñaki Zubeldia
- 7.- AMONA BASOAN GALDU ZENEKOA Arantxa Iturbe
- 8.- XOLA ETA BASURDEAK Bernardo Atxaga
- 9.- HILERRIKO MAMUAK Aitor Arana
10. JAUN AGURGARRIA Manu Lopez
- 11.- PAKO BELEAREN BIHURRIKERIAK Iñaki Zubeldia
- 12.- ERREPIDEA Miren Agur Meabe
- 13.- ETZI Karlos Linazasoro
- 14.- ZURIÑEK BELTZA IZAN NAHI DU Seve Calleja
- 15.- TXORI TXOROA Juan Kruz Igerabide
- 16.- IZEBAK Arrate Egaña
- 17.- PRINTZESEN ESKOLA Felipe Juaristi
- 18.- NIRE ESKUA ZUREAN Mariasun Landa
- 19.- MARIMUKI Antton Dueso
- 20.- OIHAN TXIKIKO MAMUAK J.M. Satrustegi

21.- AMA! Iñaki Zubeldia

22.- AITORREK BI AMA DITU Mari Jose Mendieta

5. Argitaratu diren liburuen ezaugarriak

- *Euskaldun bat Marten*, 1969an Iñaki Zubeldiak idatzia, amerikanoak ilargira joan eta handik egun gutxitara, ekintza hartan inspiratuta. Ikastoletan urte askoan ibili zen folioetan irakurgai gisa, ez baitzen inongo argitaletxetara lana aurkeztu.
1976an Irun Hiria Saria jaso zuen.
1982an argitaratu zen Elkar argitaletxeko Perkax sailean.
2008an ikasleek emandako botoen bidez **JUUL saria** jaso zuen.
Bere ibilbide luzean 30.000 aletik gora saldu dira, klasiko bat bihurtuz.
- *Txan fantasma*, 1982an idatzia, urte horretan **Zarauzko Lizardi Saria** irabazi zuelarik.
1984an argitaratu zen Elkar argitaletxeko Perkax sailean.
Hizkuntza hauetara itzuli izan da obra hau: gaztelania, katalana, ingelesa, grekera, esperantoa
- *Kludia eta baloien sekretua*, 2003an argitaratu zen Ibaizabal argitaletxeko Matxinsalto sailean.
Ikasleak harritu egiten dira Kludiarri futboleak jokatzen ez diotelako uzten. Liburuak genero berdintasuna aldarrikatu nahi du ipuin bizi baten bidez. Dagoeneko, 10.000 aletik gora saldu dira.

Ipuin kontalaritza

EGAN 2011 3/4

Sarrera

«Ipuin gehientsuenak, eta seguru asko onentsuenak, antzinako arbasoengandik datozkigun ondare literario dira, eta ipuin horiek sortu ziren bezalaxe, ahoz, belaunaldi berriei transmititzeko betebeharrak daukagu. Ez sentimentalismo hutsagatik, hitza beti ordezkazina delako baizik, batez ere haurtzarorako. Ipuin irakurriak ez du izango ahozkoaren erakarmenik eta lilurarik, edota jatorrizkoaren xarmarik, ezta ere kontatzaileak ematen dion freskurarik, haren ahots doinuak eta haren keinuak, begiradak eta pentsamenduaren hunkipen zirrargarriak lagunduta ez bada».

“El arte de contar cuentos a los niños”

Elena Fortún, 1947

Sara C. Bryantek, haurren psikologia hain ondo ezagutzen duen emakumeak, liburu zoragarri bat dauka “Ipuinak kontatzeko artea” izenburua duena eta bertan honelako gauzak esaten ditu ipuinei buruz:

«Zer da ipuina? Ipuina, batez ere eta funtsean, arte obra bat da, eta bere zeregin nagusia bide artistikoetatik barrena ibiliko da...

(...)

Narrazio eder baten egitekoa, estatua edo margolan eder batena bezalaxe, atsegina ematea da. Bizitzaren prozesuaren barruan bere eginkizuna alaitasuna eskaintzea da. Eta alaitasunak sortzen duen ondorioa izpirituen esnatze horixe da, benetan ederra den edozeren aurrean pizten den pertzepzio hori.

(...)

Arte obra bat da narrazioa eta umeari eskain diezaiokeen zerbitzurik handiena edertasunaren sentimendu eternalera dei egitea da. Honen eraginez gizakion arima aurkikuntza berrietara bultzatua sentitzen da, aurkikuntza hauek lagunduko baitiote garapen armoniatsu bat izaten».

Eta, honetaz gain, ipuina bizitzarako irakaspen bat da. Bizitzako zailtasunak eta gorabeherak islatuta aurkitzen dituzte ipuinetan eta hurrek beren bizitzarekin lotzen dituzte kontakizun hauek. Ipuinen munduan egoera eta pertsonaia fantastikoak ikusten dituzte, bizitza bera bezain egiazkoak diren arriskuak eta etsaiak, baina hauetatik onik ateratzeko gai diren pertsona indartsu eta bizkorak ere badaudela ikusten dute. Ametsetako leku zoragarrietara bidaiatzen dute ipuinen bitartez, gauza harrigarriak gerta daitezkeen tokietara. Euren fantasiak ez dauka mugarik eta maitagarritz, ogroz, sorginez, aztiz, mamuz, galtzagorritz, iratxoz... elikatzen da.

Sara C. Bryant-ek honela dio:

«Nire ustez lasai esan daiteke umeek biziki maite dituztela maitagarrien ipuinak, eta hori bera bakarrik nahiko arrazoi da beste batzuen bila ibili beharrik ez izateko. (...)

Ipuinen munduko ate hau ixten badiozue, herentzia eskubidez zor zaion zerbait kenduko diozue umeari, antzinako umeekin elkartzten duen eta bere beharrei haienei bezalaxe erantzuten dion zerbait garrantzitsua lapurtuko diozue. Antzinako umeek bezalaxe gaurko umeek ere ipuinak behar baitituzte».

Lurrean pertsona bezainbeste kontalari dagoela esan daiteke. Ipuinak, alegiak, istorioak... kontatzea antzina-antzinatik datorren jardun artistikoa da eta kontalariak gozatu egiten du bere istorioak edo ipuinak sortzen duen interesa, ezinegona, zirrara ikusita. Kontalariak besteekin partekatzen ditu bere istorioak eta horrekin maitasuna, bere jakinduria, sentipenak, misterioak, edertasunarekiko miresmena elkarbanatzen ditu.

Etxean kontatzen direnean, familiako kideen arteko loturak estutzen ditu, etxekoen ahozko hizkuntzarako ohiturak eta trebeziak lantzen eta aberasten laguntzen du eta elkarrizketarako gaiak eskaintzen ditu.

Umeei kontatzen dizkiegunean, berriz, ipuinek duten berezko edertasuna eta zirrara eskaintzeaz gain, beste hainbat atal ere lantzen ditugu: aditasunez entzuten ikastea, kontzentratuta egoten jakitea, ahozko kontakizunen ulermena lantzea, ahozko adierazpena eta keinuen adierazpena edo adierazpen eszenikoa lantzea, hiztegia, sentiberatasun estetikoa, irudimena garatzea, elkarrekin egoten jakitea...

Zein ipuin kontatu?

Ipuin bat umeei gustatuko zaien edo ez jakideko biderik onena ikustea da. Ipuina behin eta berriz irakurriz eta buruz ikasiz lor daiteke hori. Kontraste xume eta handiak irudimenaren bitartez irudika daitezkeen ala ez frogatu behar da baita ere. Erraldoi gaiztoa izugarri handia eta haren antagonista zintzoa eta ahula izatea nahi izaten dute umeek.

Kontalariak, lau edo bost urteko umeekin ari denean, ez dauka ipuin sorta bukaezin bat eduki beharrik. Adin honetako hurrek ariketa fisikorako eta mugimenduan aritzeko gaitasun handiagoa dute aditasunez eta arretaz entzuten egoteko baino. Horregatik nahiago izaten dute gustuko duten ipuin bat behin eta berriz entzutea, berri bat entzutea baino. Lehenbizi, hurrek adinaren arabera nahiago izaten duten ipuin mota erabaki behar dugu. Biziki nahi izaten dituzte kontaketa jakin batzuk; beren garaian ematen ez bazaizkie, horienganako zaletasuna eta interesa betirako galduko dute. Honi buruzko adibide bat eskaini genezake maitagarrien ipuinekin. Ipuin hauek ez bazaizkie kontatzen beraiei gustatzen zaizkien garaian, litekeena da sekulan gehiago ez interesatzea.

Sara C. Bryant-ek sailkapen hau dakar umeen gustuen arabera:

3tik 5 urtera:

- Errimadun istoriotxoak.
- Zati batzuetan bertso eran emandako istorioak.
- Animalia pertsonifikatuen istorio biziak.
- Ipuin barregarriak.
- Maitagarrien ipuin xumeak

5etik 7 urtera:

- Folklorea (tokian tokiko kondairak edo legendak).
- Maitagarrien ipuinak eta ipuin barregarriak.
- Fabulak edo alegiak.
- Legendak.
- Animalien istorioak.

Handiagoentzat (zehaztu gabe):

- Folklorea.
- Fabulak edo alegiak.
- Mitoak eta alegoriak.
- Animalien istorioak eta parabolak.
- Kontakizun historikoak.
- Umorezko kontakizunak.
- Egiatzko kontakizunak.

Eta maitagarrien istorioen artean Perrault, Andersen eta Grimm anaien ipuin hauek aipatzen ditu bere zerrendan: *Txanogorritxu, Erpurutxo, Asto larrua, Loti ederra, Katu botaduna; Ahatetxo itsusia, Hegatxabala eta bitxilorea, Elurretako Erreginareen zazpi historiak, Kalamua, Izeia, Zapatilla gorriak, Ole Lukoïe (itxi begiak), Astelehena, Larunbata, Igandea, Bost ilarrak, Almendratxoa, Ahate portugaldarra, Juan Inozoa; Urrezko izarrak, Katua eta sagua, Giltza, Erbia eta dortoka, Edurnezuri eta Arroza gorria, Erpurutxo, Miren Edurne, Hiru anaiak, Zazpi antxumeak eta otsoa.*

Hauetz gain, Grezia eta Erromako mitologiako pertsonaien historiak ere aipatzen ditu Sara C. Bryant-ek: *Teseo eta Minotauroa, Ulises eta Polifemo, Apolo eta Dafne, Arakne, Pandora, Midas eta sorgin harria, Alzeste, Narciso eta Oihartzuna, Latona eta nekazariak, Proserpina, Orfeo eta Euridize.*

Sara C. Bryant-ek aholkatutako ipuin hauez gain, euskal ipuin biltzaileek ere badituzte ipuin mirengarri, mitologiko eta maitagarrien ipuin zoragarriak, hala nola: *Makilakixki, Sorgin gaiztoa, Hiru anaiak, Hiru olatuak, Tartalo, Lapurren etxea, Txitxirio txiki, Xirula mirengarria...* Euskal Herrian ipuin biltzaile ugari eta oso onak izan ditugu eta horietako batzuk aipatzearen, honako hauek jarriko ditugu hemen: Joxe Miel Barandiaran, Resurreccion Maria Azkue, Joxe Mari Satrustegi, Juan Manuel Etxebarria, Mayi Ariztia...

Nola kontatu

Hainbat aholku eman ohi dira ipuinak ondo kontatzeko. Baina kontalari bakoitzak mundu berezi bat dauka, kontatzeko era bat, trikimailu oso pertsonalak erabiltzen ditu. Hemen ipuinak kontatzerakoan kontuan eduki behar liratekeen puntu batzuk zerrendatuko ditugu, baina gero kontalari bakoitzak bere era eta estilo pertsonala landuko du. Garrantzitsuena umeak liluratzea da, istorioarekin harrapatzea eta beraien bihotz samurretan zirrara sortzea.

Hona hemen hainbat aholku ipuin kontalari izan nahi duenarentzat:

- Fonetika aldetik hizkera garbia, ulergarria erabili.
- Ahotsa atsegina, argia, ondo modulatu.
- Urrutien dauden umeez entzuteko moduan hitz egin.
- Monotoniatik ihes egin ipuina kontatzerakoan, bizitasuna mantenduz.
- Ahoskapenean, estiloan eta intonazioan xalotasuna bilatu.
- Ipuineko pertsonaia ezberdinen hizkerak eta keinuak bereizi.
- Ipuina kontatu aurretik ongi ikasi eta menderatu.
- Zerbait gaizki esanez gero, haurrak konturatu gabe hariari berriz heltzeko eta ipuinarekin jarraitzeko trebezia landu, bestela nahastu egiten baitira.
- Ipuinaren gidoiak hala eskatzen duenean, ekintzei eta hitzei bizitasuna eman.
- Deskribapen eta azalpen gutxi, ipuinaren haria ez galtzeko.
- Ahotsaren modulazioa, keinuen eta begiradaren mugimenduak naturaltasunez egin.
- Ipuina barren-barrendik bizi eta kontatzen ari garena imajinatu.
- Emozioak eta sentimenduak transmititzerakoan lotsarik ez izan.
- Zerbait sinpatikoa datorrenean, aurrez giroa prestatu, konplizitatea sortuz.

Eta sarrera hau bukatzeko zilegi bekit Seve Callejaren pasarte zoragarri hau hona ekartzea, ipuinen munduko magia eta misterioa ezin hobeto adierazita baitaude hitz hauetan:

«Lurraren barren-barrenean, badago ezkutuko putzu misteriotsu bat; umeei hori kontatzen zieten helduek. Tiranoek, maitale saminduek, jainko jeloskorrek eta beste hainbat izaki gaiztok hara botatzen zituzten beren biktimak, horrela, aitortu ezin zituzten barruko sekretuetatik libratuko zirelakoan. Horrek argitzen du zergatik dioten askok aieneak, kexak eta zurrumurruek entzuten dituztela itsaslabar, bidezidor bakarti edota etxe huts abandonatuen inguruan: zirrikitu eta pitzaduretatik ihes egiten duten oihartzunak izango dira, izan ere. Putzu hori agian haitzuloa da edo, beharbada, lurrazpiko ibaia izango zen garai batean, eta istorio harrigarriak daramatza oraindik, ura bezalaxe bata bestearekin gurutzatzen eta nahasten diren istorioak. Beharbada, noizbait putzu hori gordeleku gisa erabili dute gaizkileek eta iheslariek, gerlari bihozgabeek, maitale setatiek... baina dirudienez, oraindik ez da inor iritsi putzuaren hondora.

Gutxi esploratutako putzu babesgabe horretara erori dira ipuinetako pertsonaia nagusi asko. Bizirik jarraitzeko edo jendeak gogora ditzan egin behar izan dute hori, beharbada. Gaur egun, kontuotaz gehien dakitenek esaten dute putzu horrek ezkututzen dituen misterio eta sekretuak ateratzea oso zaila dela, ezen putzuaren sakon-sakonean izpiritu edo iratxo berekoi bat bizi omen da, eta hark ez omen dio inori uzten berea den ezer handik ateratzen. Batek daki iratxo madarikatu hori nor den edota nola amildu den putzura. Ezinezkoa da handik inor bizirik ateratzea, eta are gutxiago, iratxoaren ondasunen batekin. Gehienez ere, hondora iristea lortzen duenak bidea nondik nora den kontatuko du beste inork entzun gabe, edota gogoan hartu ahal izango du misteriozko formularen bat, isilpeko sorginleriaren bat, edo, besterik ez bada, haien istorioetatik jausitako berbetako batzuk jasoko ditu, orain, norarik gabe, hegan ilunpetan dabiltzanak. Baina irakurmenez, isiltasunez eta pazientziaz eskala sendo

bat txirikorda daiteke agian, errealitatearen azaleko edertasun, maitasun eta misterio ezari aurre egiteko».

OHARRA: Lan hau osatzeko Antton Irustaren apunte batzuetatik hartu ditut hainbat ideia eta pasarte.

Elkarrizketa

Ipuin kontalaritzaren barruko hariak eta misterioak hobeto ulertzeko eta arte horretaz zerbait gehiago jakiteko, ipuin kontalari atipiko bat aukeratu dut elkarrizketatzeko: Idoia Sanchez, tolosarra. Berak azalduko dizkigu bizi izan dituen esperientziak eta ipuin kontalaritzaren ofizioa nola bizi izan duen.

Elkarrizketatzailea: Iñaki Zubeldia (I.Z.)

Elkarrizketatua: Idoia Sanchez (I.S.)

I. Z.: Idoia, nola hasi zinen ipuinak kontatzen?

I.S.: Nire lehen ipuin kontaketak nahiko azkar hasi nituen, neska gaztea nintzela, harrapatzen nituen umeei ipuinak kontatzen bainizkien. Nire ipuin kuttunena garai hartan *Ile kizkurra* izaten zen, hiru hartz bizi ziren basoan eta neska bat azaltzen da haien etxean... Ipuin horrekin hasten nintzen, jolas moduan, lehengusuei eta ingurukoei kontatzen. Eta bereziki nire ahizpa txikiari. Gero ume batek panpina bat baldin bazeukan, panpina hartzen nuen eta esaten nion gaixo zegoela eta edozein historia asmatzen nuen... Horixe izan zen nire lehen esperientzia.

I.Z: Zenbat urte bezala izango zenituen orduan?

I.S: Hamasei-hemezortzi urte inguru, nire ahizpa txikiari hamalau urteko aldea ateratzen baitiot. Lehenagotik ere kontatzen nizkien ipuinak auzoko eta inguruko ume txikiei, baina nire ahizpa txikia izan zen bereziki nire ume txikitzat hartu nuena eta ipuinak kontatzen nizkiona edozein unetan.

I.Z: Baina ipuinen munduan bakarrik ez zara ibili zu...

I.S: Ez, gehiago ibili naiz, urte askotan, antzerki munduan, klown-en munduan... Baina behin, bidaia batean esperientzia berezi batzuk izan nituen eta lagun bati hura dena kontatu ondoren, begira-begira gelditu zitzaidan eta esan zidan: «Idoia, istorioak kontatzeko trebezia berezia daukazu, indar handia eta bizitasuna ematen diozu kontakizunari... Ipuinak kontatu behar zentituzke». Anekdotak hori hortxe geratu zen eta nik jarraitu nuen denetik egiten: antzerkia, klown, dantza, abestu...

I.Z: Gauza asko egin duzu, beraz, ipuin kontaketeekin hasi aurretik.

I.S: Bai, gero, hasi nintzen hemen, Tolosa mailan, inmigranteekin lan egiten zuen elkarte batekin, eta hauek antolatu zuten “Encuentos” izeneko ekitaldi bat: bertan erakusketa bat egiten zen eta hango oinarria ziren ipuinak, mundu guztiko ipuinak, ipuin desberdinak. Artistek ere parte hartu zuten ekitaldi hartan, pintoreak, zeramistak... Hauek hartu behar zuten beste lurralde bateko ipuin bat eta egin behar zuten obra bat ipuin horretan oinarrituta edo inspiratuta. Nik hor parte hartu nuen munduko ipuin diferenteak ikastetxeetan kontatzen. Horrela, ia konturatu gabe, nire ipuin kontalaritza bidea irekitzen hasi zen, toki batetik eta bestetik deitzen baitzidaten. Eta horrela zentratu nintzen gehienbat ipuin kontalaritzan, nahiz eta oraindik beste arlo horietan ere (antzerki, klown, etabar) parte hartzen dudana aukera izaten dudanean.

- I.Z: Eta nolakoak izan ziren zure aurreneko esperientzia haiek? Zerbaitetarako balio izan al zizuten?
- I.S: Esperientzia oso positiboak izan ziren eta asko disfrutatu nuen umeen artean ipuinak kontatzen. Eta horrek beste esperientzia berri bat ekarri zuen: Galtzaundi Euskara Taldearekin ipuinak kontatzen hasi nintzen Tolosan eta inguruko herri txiki gehienetan. Hau guztiz desberdina izan zen, hemen ez baitziren, eskoletan bezala, talde homogeenak eta adin berdintsukoak izaten. Hemen ume txiki-txikiak, handixeagoak, handiak, gurasoak, aiton-amonak, denetik agertzen ziren ipuin kontaketa entzuterak. Materiala prestatuta eramaten nuen, baina hemen zailagoa zen asmatzen. Batzuetan bete-betean asmatzen nuen, beste batzuetan ez hainbeste. Baina jardunak berak erakusten dizu zein den bidea. Beldurak eta aurreiritziak ere kentzen dizkizu, zeren eta zuk pentsatzen duzu hau gehiegi izango da horrelako entzulego baten aurrean kontatzeko, eta gero konturatu zara oso ondo hartzen dutela zuri beldurra edo kezka sortzen zizun hori. Publikoak eta entzulego bakoitzak eta han sortzen den giroak ere esaten dizu kontaketa saioa nondik nora eramane behar duzun. Hori ere ibiliaren poderioz ikasi egiten da. Baina esan dezaket herriz herri ibiltze hori oso esperientzia polita eta aberatsa izan zela niretzat.
- I.Z: Entzulegoa hain desberdina izanik, ez da ba erraza izango denekin asmatzea eta denak konforme uztea.
- I.S: Bai, egia da ez dela erraza ume txiki-txikiak, gaztetxoak, gazteak eta helduak daudenean, denen gustua egitea. Ni saiatzen naiz adin tarte bakoitzekoentzat zerbait berezia eramane. Txiki-txiki-entzuleentzat beti eramane behar duzu material bereziren bat prestatuta haien arreta pixka batean irabazteko behintzat. Izan liteke album polit bat, istorio eder batekin; ipuin berezi bat adin horretarako; ipuin klasikoren bat... Gero, besteentzat ere beti eramane dut materialen bat adin bakoitzari egokituia. Baina horrek ez du ziurtatzen saioa beti borobila aterako denik. Inoiz gertatzen da gazteren batek esatea: «Jode, vaya rollo!» Baina, hori ere ez da beti gertatzen. Gainera, ni saiatzen naiz janzkeratik hasita azkeneko mugimendura arte interesa piztuta mantentzen. Horretarako, jantzi bereziak eramane ditut, imintzioak edo keinuak sartzen ditut kontakizunean, ahotsaren modulazioa, pertsonaia bakoitzaren ahots diferentea egiten saiatzen naiz, hainbat eszena antzezten... Horrela, lortzen duzu entzulearen arreta zureganatzea eta erne mantentzea.
- I.Z: Nola lortzen duzu material egokia umei kontatzeko eta erakusteko?
- I.S: Gaur egun material izugarri dago umeentzako pentsatua. Guraso batzuk badute ohitura beren umeekin liburutegira joateko eta ipuinak eta albumak ikusteko. Baina beste askok ez dute ohitura hori. Eta ona da ipuin kontaketa aprobetxatzea gurasoei ikusarazteko material ugari dagoela txiki-entzuleentzat ilustrazio bikainekin, istorio zoragarriekin... Umei ere horrelako liburuak edo albumak ikusteko gogoia pizten zaie eta ona da txikitatik liburutegirako bidea erakustea, istorio ederrez eta marrazki dotorez beteriko harribitxi horiek ikusteko. Mota eta estilo guztietako liburuak daude eta umeen gustu eta zaletasun anitzei erantzun dieten materialak liburutegietan egotea oso garrantzitsua da.
- I.Z: Eta orain eskoletan ere ibiltzen zara kontu kontari...
- I.S: Bai, Ibaizabal argitaletxearekin hasi nintzen eskoletan ipuinak kontatzen. Oinarri bat baneukan orain arteko esperientziarekin, eta gutxi edo gehiago banekien zein ipuin motak funtzionatzen zuen txiki-txikiarekin, handixeagoekin eta gaztetxoekin. Horrez gain, konturatu nintzen beti ez dela beharrezkoa izugarriko ipuin piloa edukitzea zorroan adin tarte diferentekoentzat. Batzuetan ipuin berberak, laburrago edo xehetasun gehiagorekin kontatuta, edota imintzio eta ahots

moldaketa gutxiago edo gehiagorekin, balio zuela txiki-txikientzat eta hain txiki ez zirentzat. Inoiz beldurra edukitzen duzu gauza batzuk kontatzeko, pentsatuz «hau ez al da gehiegi izango ume hauentzat, ez al da gogorregia, edo sinpleegia izango...» Eta animatzen zara kontatzera, eta konturatzen zara izugarri gustatu zaiela eta antzeko beste ipuin bat eskatzen dizutela. Umeak dira erakusten dizutenak zein ipuin mota gustatzen zaien eta zein muga kendu behar duzun zure erreiritzietatik.

I.Z: Eskoletan ez dituzu adin guztietakoak edukiko. Horrek errazten al du zure lana?

I.S: Ez. Hor ikasturtez ikasturte biltzen dituzte haurrak eta emanaldi bakoitzean adin bereko haurrak daukazu eta hori abantaila handia da. Ipuinak adinen arabera moldatzen dituzu eta badakizu une bakoitzean nori ari zaren ipuina kontatzen. Horrek asko errazten du kontalariaren lana eta umeen artean enpatia handiagoa sortzen da, batek barre egiten badu, aldamenekoa ere barrez hasten baita, edota batzuk serio-serio badaude, besteek ere horien jarrera imitatzen baitute.

I.Z: Eta kasu hauetan nola egiten duzu ipuinen aukeraketa?

I.S: Badaude ipuin batzuk adin konkretu batzuetan kontatzea komeni direnak. Eta horiek ere zure materialen artean erabiltzen dituzu, beti eta toki guztietan kontatzen ez badituzu ere. Zortzi urtetik aurrera, normalean beste era bateko istorioak nahi izaten dituzte eta bestela hor hasiko zaizkizu: «Zer umekeria kontatzen ari da hau?» edota «Hori txotxolokeria». Umeek laster esaten dute egia eta ez dira diplomazia handiaren jabe. Horregatik, ahalegin handia egin behar da adin bakoitzari gustagarri zaizkion ipuinak aukeratzen. Zortzi urtetik aurrera beste mota bateko istorioak nahi izaten dituzte: abenturak, beldurrezko kontakizunak, zerbait magikoa, munduko istorioak eta leiendak, edota arrazakeria eta solidaritatea bezalako gaiak ukitzen dituzten ipuinak, baina modu dibertigarrian eta abentura moduan emanda.

I.Z: Zenbat denbora irauten dute ipuinek?

I.S: Txikiek ezin dute luzaroan arreta mantendu. Horregatik hamar minutu ingurukoak izatea komeni da gehienez. Laburragoak ere izan daitezke. Baina zortzi-hamar urtekoei hogeituro minutuko ipuin bat kontatu diezaikezu, deskribapen gehiagorekin, behar diren azalpenetan lasai luzatuz, baina beti istorioaren haria galtzeko arriskurik gabe egiten baduzu. Istorioaren haria galtzen badute, interesa ere joaten zaie eta ipuinak ez die ezer asko esango. Horregatik dira hain inportanteak imintzioak, keinuak, aurpegiko espresio bereziak, ahotsaren modulazioa egoera desberdinen aurrean...

I.Z: Zer ikusten duzu zuk entzuleen artean, ipuina kontatzerakoan?

I.S: Kontalaria beti arreta bere entzulegoan jarrita dago. Entzuleen erantzuna aurpegian eta haien keinuetan nabaritzen duzu eta zure jarduna haien jarreraren ispilu bezala da. Haien erreakzioak baldintzatzen du neurri batean zure jarduna. Ondo ikusten badituzu, pozik eta kementsu jarraituko duzu badakizulako egiten ari zarena iristen ari dela entzuleengana. Hotzago edo hilago nabaritzen badituzu, saiatu beharko duzu bizitasun gehiago jartzen zure kontakizunean, eta hurrengo ipuina aukeratzekoan ipuin biziago bat aukeratzen, entzulego horrengana ailegatuko dena. Baina orokorrean esan liteke entzulegoa zoragarria dela, esker onekoa, bere poza eta satisfakzioa azaltzen dizuna momentuan. Eta horrek kontalariaren autoestima eta istorioak hobeto kontatzeko grina suspertu egiten du.

I.Z: Emigranteekin egindako “Encuentos” hura azal ezazu pixka bat.

- I.S: Gaur egun bada emigranteekin lan egiten duen erakunde bat “Ereite” izena duena, baina orduan “Kolore guztiak” izeneko talde bat zen kanpotik etorritakoekin lan egiten zuena. Lehengo urtean Tolosako “emigrazioko teknikariak” proposatu zidan liburuaren egunerako Andersenek ipuin bat lantzea gazte marokiar batzuekin. Gazte horiek arabieraz ikasi eta kontatu behar zuten ipuina eta nik euskaraz kontatuko nuen entzulego mixto baten aurrean. Oso denbora gutxi eduki genuen prestatzeko (lau bat egun) baina gazte marokiarrak oso ondo inplikatu ziren lanean, eta aurrena ipuina ikasi behar izan zuten erderaz eta gero arabieraz kontatu. Andersenek “Pizgailu magikoa” izeneko ipuina aukeratu genuen eta begiraleek eta laguntzaileek ere lan izugarria egin zuten. Umeak, gurasoak, emigranteak, denetik izango ziren entzule. Azkenean, ipuina erdi antzetzuta egin genuen. Aurrena, nik euskaraz kontatu nuen, hemengo umeek jakin zezaten zertaz zen ipuina. Eta gero bi gazte marokiarrak kontatu zuten, bi begiralek eta nik neuk laguntzen genielarik ipuina antzetzten, arabeen agurrak edo diosalak eta erreberentziak eginez: Salam aleikum, aleikum salam! Oso gauza hunkigarria eta polita izan zen eta toki desberdinetatik deitu ziguten esperientzia hura ezagutzeko. Umeek izugarri disfrutatu zuten esperientziarekin eta bi gazte marokiarrak zer esanik ere ez. Horregatik, integrazioaz hitz egiten denean, horrelako gauzek ere lagundu egiten dutela kontuan hartu behar genuke. Eta ahal bada antzeko ekitaldiak antolatu eta eskaini entzulego misto bati. Oso aberasgarriak dira beraientzat eta hemengo jendearentzat ere.
- I.Z: Ipuin kontalari bezala zein esperientzia gehiago izan dituzu?
- I.S: Emakumeen berdintasunaren aldeko saioretan tokatu izan zait inoiz ipuinak kontatzea. Orain arazo batzuen aurrean, bullying-a, eraso sexualak, etab direla eta, ipuin batzuk topatu nahi ditut, gai serio hauek ipuin bidez azaltzeko eta ezagutzera emateko. Berezi institutu etako gazteentzat izango litzateke plan hau. Orain arte borrokak eta joka aritzea mutilen arteko gauza zela uste genuen, baina orain nesken artean ere indarkeria kasu gero eta gehiago ematen ari dira eta honetaz guztiaz hausnarketa egin beharra dago eta ipuina oso bide egokia izan daiteke horretarako. Horregatik, ipuin egoki batzuk bilatu nahi ditut gai hauek ondo tratatzeko.
- I.Z. Idoia, jakin dut Galizian ere esperientzia berezi bat bizi izan duzuela. Konta ezazu pixka bat esperientzia hori.
- I. S. Behin, gau batean suaren inguruan bilduta geunden ipuinak kontatzen. Mutil batek bere ipuina kontatu zuen, eta ondoren nik ere nire ipuina kontatu nien han bildutakoei. Gero, mutil hura etorri zitzaidan esanez nire ipuina asko gustatu zitzaiola eta zergatik ez nintzen joaten Galiziara ipuinak kontatzera, han jaialdi bat egiten zutela eta. Horrela, iaz joan nintzen Galiziako herri txiki-txiki batera. Beno, herria ere ez da. Hamalau edo hamabost pertsona biziko dira eta udan jende gehiago biltzen da. Mutil horrek han erosi zuen etxea eta duela bost bat urte hasi zen udan jaialdi bat antolatzen egun batzuetan ipuinak kontatuz, antzerkiak eginez eta abestiak abestuz... Beno, klownak, musikariak... denetik egoten da herri horretan eta dena dirurik gabe antolatzen da, oholtza inprobisatu bat jarri eta izugarrizko ilusioarekin. Txabola antzeko toki handi samar bat antolatzen dute eta han denok parte hartzen dugu jaialdian eta gero janaria antolatzen, lotarako tokia herriko jendeak uzten du bere etxe, borda edo etxoletan... Ikusten duzunez, Erdi Aroko antolakuntza baten antza handiagoa du garai moderno hauetakoa baino. Hala ere, han egiten denak gauza autentikoen kutsua dauka, dena borondatez eta ilusiorik handienarekin egiten baita. Iaz joan nintzen lehenengo aldiz eta aurten ere pozik itzuli naiz nire bi alabekin. Eta gazteak izanda, ez dira aspertu, alderantziz, izugarri disfrutatu dute: autentikotasunaren xarma

izango da. Egunez arropa zaharrekin eta lanean ikusten zenuen adineko emakumea, iluntze aldera, ekitaldia zegoenean, arroparik dotoreenak jantzita ikusiko zenuen, munduko ilusiorik handienarekin. Herritarrek izugarri lagundu digute eta izugarri inplikatu dira proiektuan. Beno, esan behar da ez dela egun bateko jaialdia, hainbat egunetan egiten dena baizik. Egun batean ipuinak kontatzen dira, beste batean antzerkia, beste batean musika jaialdia... Inguruko herrietakoak ere etortzen dira jaialdi hauetara. Gainera, ikastaroak ere antolatzen dira eta umeek pozik hartzen dute parte tailer horietan, kometak egiten, dantzak ikasten, marrazten edo beste hainbat gauzatan. Harrigarria da jendearen partizipazioa: emakume xahar baten anekdota kontatuko dizut. Laurogeita piko urte edukiko zituen eta egunero etortzen zen jaialdira. Egun batean, Madriletik etorritako mago baten emankizuna zegoen eta euria hasi zuen. Bada, norbaitek plastikoak ekarri zituen eta denok hantxe iraun genuen aterkien edo plastikoen azpian emanaldia bukatu arte, amonaxo hark ere bai. Madrileko magoa txundituta geratu zen eta antolatzaileari erregutu zion hurrengo urtean ere deitzeko, ez zuelako galdu nahi jendearen aldetik horren erantzun jatorra eta erabatekoa izaten zuen jaialdia. Horregatik, berezia da Galiziako jaialdi hau, badu zerbait magikotik eta jendeak ilusio biziz erantzuten du, xentimorik kobratu gabe. Esperientzia zoragarria da bai entzule eta bai jaialdiko partaide bezala bizitzen duzuna. Aurten gainera, denetik egitea egokitu zait: ipuinak kontatu, klown-en monologo bat emakumeari buruz, aurkezlea izan nintzen jaialdi osoan eta elkarrizketak egiten nizkien parte hartzaileei hango telebistarako. Eta batez ere ikasi egin dut pilo bat. Beraz, esperientzia ezin hobea izan da niretzat. Eta kontatutako guztiaz gain, goizetan txangoak antolatzen zizkiguten inguruko lurraldeak eta txokorik politenak eta magikoenak ezagutzeko. Piñeiro de Areas da herriaren izena eta udan paradisu txiki bat bihurtzen da artistentzat eta ume izpiritua oraindik ere mententzen dugunontzat.

Jasone Osoro, gazteek biziki estimatzen duten idazlea

EGAN 2012 1/2

Biografia

Berdin dio zenbat urte dituzun. Laurogei urteko pertsonak ere barruan darama egun batean izan zen ume txikia. Halakoxea sentitzen naiz ni oraindik ere sarritan, txikia, umea, haurra. Jada baditut berrogei urte eta badakit (gutxi gorabehera) zer nahi dudan. Badakit gauza batzuk hobeto eta beste batzuk okerrago egiten ditudala. Gaur egun esan dezaket idaztetik bizi naizela, sorkuntzatik, baina... Oraindik ere kostatzen da egiten zait idazlea naizela esatea. Ozen esatea. Publikoki esatea.

Bada, horregatik beharbada, baditut nire intseguritateak eta galdetzen didatenean noiz hasi nintzen idazten... atzera, oso atzera egiten dut. Eta irakurtzen noiz hasi nintzen erantzuten dut. Gure etxean liburuak beti egon direla kontatzen dut. Gure ama beti ezagutu dudala etxeko sukaldean liburu bat eskuetan. Komikiak irakurtzea atsegin nuela kontatzen dut. Irudiz eta letraz osatutako bildumekin sartu nintzela ni literaturaren unibertsoan. Eta kontatzen dut entzutea beti gustatu izan zaidala asko. Amak eta amamak kontatutako txikitako istorioak. Lagunek kontatutako gertaerak. Elkarrizketatuek azaldutako bizipenak. Horregatik egin nuen kazetaritza. Entzutea gustatzen zitzaidalako eta baita, zergatik ez aitortu, galdetzea ere. Eta zer hobea hirurak, galderak, erantzunak eta idaztea uztartzeko kazetaritza egitea baino. Gero bizitzak gidoigintzaren ateak ireki zizkidan eta hor, telebistan, sormenari egin nion lekua kazetaritzaren mundu erreala alboratuz. Eta gaur egun letren munduak ematen dit jaten, *Berbak* enpresa sortu nuenetik horixe baitut lan-tresna, hitza. Nire literatura-lanak egiteaz gain, enkarguz ere idazten dut: ipuinak, biografiak, katalogoak, agendak, gidoiak, enpresen memoriak, gidak....

Edonola, idaztearen ofizioa gaztaroan izan nituen bi maisu bikainei zor diet, nolabait. Beraiek jabetu ziren nigan bazegoela ahots berezia. Gustuko nuen idaztea eta txukun egiten nuela esan zidaten. Horregatik, bi irakasle horiek emandako aholkuei kasu eginez irakurtzen jarraitu nuen, eta ikasten eta lan egiten eta, nola ez, baita idazten ere. Nire kasa. Nire kontu. Niretzat, ez beste inorentzat. Tarteka amari erakusten nion nire ipuin bat. Tarteka lagun bati aitortzen nion zerbait idatzia nuela. Tarteka lehiaketa batera aurkezten nuen nire ipuinen bat. Tarteka zerbait irabazi ere egiten nuen.

Eta... eta horrela, galdetuz, erantzunez eta nire sekretua lagunekin konpartituz iritsi zitzaidan nire estreinako lana argitaratzeko aukera. Kazetaria nintzen Elgoibarko astekarian eta nire lagun baten lagun baten bidez garai hartako *Euskaldunon Egunkarian* argitaratu zuten *Lehenengo aldia* ipuina. Hura izan zen hasiera. Harreman baten hasiera. Gaur arte irauten duena. Xabier Mendigurenek deitu zidan, ipuin hura gustuko zuela esan zidan eta handik bi urtera kaleratu zen *Tentazioak*.

Eta hortxe, oharkabea, irakurle batzuk tentatu nituen. Eta komunikabideak harrিতuta aspaldiko partez emakume gazte bat agertu zelako letren merkatuan, zer eta ipuin erotikoak idazten. Orroa mediatikoa. Prentsa, irratia eta telebista. Emakumea eta idazlea. Eta gaztea. Boom hitza. Pasako da. Moda bat da. Eta horren osteko beldurra eta bertigoa etorri ziren. Eta orain zer? Lehen nobela noizko? Gai izango al naiz?

Lortu nuen adorea ateratzea, beharbada banuelako zer kontatua. Batez ere nahi nuelako zerbait kontatu. Eta nire barne korapiloak askatzeko idatzi nuen *Korapiloak*.

Eta gaur arte badira nire literaturgintzan beste zenbait liburu ere, eleberriak, nerabeei zuzendutako nobelatxoak, ipuinak, kronikak eta abar.

Idazle izatea idaztea bada, bai, idazlea naiz. Idazle izatea jarrera bada, orduan... orduan asko daukat ikasteko. Eta ikasteak, hain justu, ematen dit idazten jarraitzeko motibazioa.

Bibliografia

- *Tentazioak*, Elkar, 1998. Ipuin bilduma.
- *Isadora*, Elkar, 1998. Biografia.
- *Euskal idazleen ipuin erotikoak* (beste egileekin), Txalaparta, 1998.
- *Gutiziak* (beste egileekin), Txalaparta, 2000.
- *Bakarrizketan* (beste egileekin), Alberdania, 2001.
- *Korapiloak*, Elkar, 2001. Ipuinak eta poemak.
- *Jara*, Zubia, 2001. Haur eta gazte literatura.
- *Nora eta otsoak*, Baigorri, 2002. Haur eta gazte literatura.
- *Greta*, Elkar, 2003. Nobela.
- *Jara, bikiak eta bikoteak*, Zubia, 2005. Haur eta gazte literatura.
- *Jara Bartzelonan*, Zubia, 2007. Haur eta gazte literatura.
- *Ezekiel*, Elkar, 2009. Haur eta gazte literatura.
- *Bi marra arrosa*, Txalaparta, 2009. Kronika liburua.
- *Jara live*, Zubia, 2010. Haur eta gazte literatura.
- *Ezekiel nora ezean*, 2012. Haur eta gazte literatura.

Itzulitako obrak

- *Desnudos*, Seix barral, 2002.
- *Greta*, Seix Barral, 2007.
- *Jara*, Alfaguara, 2009.

Sariak

- Zazpi kale saria (1998), *Tentazioak*.
- Zilarrezko Euskadi saria (2001), *Korapiloak*.
- Juul 1. saria (10-12 urte), 2006, *Jara*.
- Juul 2. saria (10-12 urte), 2007-2008-2009, *Jara*.
- Juul 3. saria (DBH), 2005, *Jara*.
- Juul 1. saria (DBH), 2008, *Jara Bartzelonan*.
- Juul 2. saria (DBH), 2009, *Jara Bartzelonan*.
- Juul 3. saria (DBH), 2010, *Jara Bartzelonan*.
- Juul 1. saria (DBH), 2010-2011-2012, *Ezekiel*.
- Liburu Gaztea 1. saria (DBH), 2007, *Jara, bikoteak eta bikiak*.
- Liburu Gaztea 1. saria (DBH), 2011, *Ezekiel*.